

Eki-Baionako hauteskundeak

Jean Rene Etxegarai

• UDF-RPRKO HAUTAGAIA EKI-BAIONAN •

«Euskal Departamendua defendituko dut Pauen»

■ ■ ■ Baionako gehiengoko zinegotzia izatea eta Pauen gehiengoan egotea proiektuak aitzinarazteko baldintza garrantzitsutzat jo du. ■ ■ ■ Euskal Departamenduarekiko erabateko atxikimendua adierazi du. ■ ■ ■ EAJren sustengua «zintzotasunari» loturikoa dela dio, eta ez akordio baten ondorio.

■ Zein dira zure lehentasunak hauteskunde kanpaina honetan?

Hiru aste daramat etxez etxe, hautesle guztiekin mintzatzeko asmoa baitut. Orain arte agertu zaizkidan eskakizun gehienak sozialak izan dira, baina baita ekonomia eta ingurugiroari dagozkionak ere. Bizitza erosoago baten nahia ere kezka nagusi gisa ageri da. Baionako Udaleko gehiengoko hautetsia naiz, eta departamenduan ere hala izatea espero dut. Bi egituren ekimenak ezinbestekoak dira proiektuak aitzinarazteko, eta bide horretan kokatuko dut nire ekimena. Ildo horretatik, udalari eta departamenduari Baionako hirigunean eremu ekologiko bat egin dadin galdeginen diet.

■ EAJtik Frantziako eskuin kontserbadorera, nola lortu duzu denen gustukoa izatea?

Egia da oso sustengu zabalak dudala, eklektikoa erran genezake. Eskuin eta zentroko hautagai bakarra naiz. Sustengu hori plangintza oso pragmatikoa dudalako lortu dut, aferak hurbiletik segitzea gogoia dudalako. Ez dut politika arazorik.

■ EAJk, bigarren itzuliaren zain egon gabe, zure aldeko boza galdegin du, nahiz eta Abertzaleen Batasunaren hautagaia egon. Zergatik?

Ez dugu akordio berezirik egin. Euzko Alderdi Jeltzaleak egiaztatu nahi izan du nire zintzotasuna, eta hori baieztatu ondoren agertu dit sustengua. Izan ere, Euskal Departamenduaren alde joan den urriaren 9ko manifestaldiaren prestaketan aktiboki parte hartu dut, inolako arazorik gabe, nahiz eta jakin bozak gal nitzakeela, kantonamendu honetan gaskoi asko dagoelako Euskal



BOB ED, ME

Pragmatismoa

«Eskuin eta zentroko hautagai bakarra naiz. Sustengu hori plangintza oso pragmatikoa dudalako lortu dut»

Departamendua begi onez ikusten ez duena.

■ Euskal Departamendua-ren aldekoa zarela diozu, baina hautatua izanez gero Euskal Departamenduaren aurkari nagusia den François Bayrouri emanen diozu sustengua Pauen. Koherentea ote da?

Badakizu, alderdi politiko guztiek dituzte halako arazak, ezker ala eskuin. Nire aldetik, Kontseilu Nagusian

hautatua baldin banaiz, segur egon zaitezke —bilkurraro gaia aterako ez badut ere— behar den guztietan agertuko naizela Euskal Departamenduaren alde Pauen. Euskal Departamendua obratzeko bidea luzea izanen da oraino, eta pazientzia behar da. Ez dut etsiko, uste baitut François Bayrou bera konbentzi dezakegula.

Hur Gorostiaga
BAIONA

Miarritzeko abertzaleek Larralde sustengatu dute

Erredakzioa / Baiona
MIARRITZEKO bost hautesle aberzaleek (Jakes Aberri, Peio Claverie, Maider Hennebutte, Michel Poueyts eta Jean Michel Sorraits) beren sustengu osoa adierazi diote Xabi Larralderi, Eki-Baionako kantonamenduko hautagai aberzaleari, kanpainaren kalitatea eta Distrituari buruz duen ikuspegia azpimarraturik.

Larralde, hain zuzen ere, elkarretaratze baterako deia egin du: bihar arratsaldeko 5:30etan, Errobiko kaserenaren aitzinean. Bertan Baionako Udalak eraiki


nahi duen «megazinema» salatu dute. «30 lanpostu baizik ez ditu sortuko, baina zenbat kenduko inguruko karriketatik?», salatu du Larralde.

Azkenik, Jean Grenet auzapezak Baionako biztanleriari buruz emandako zifrak «okerrak» direla adierazi du Larralde. INSEE estatistika etxeko iturriak aipaturik, Baionan egun 40.016 biztanle daudela dio Larralde, eta ez Grenetek erran zuen bezala 41.778. «Biztanleriaren urtez urteko gainbehera auzapezaren taldearen lanaren ondorio da», adierazi zuen Larralde.

urriaren 30etik
azaroaren 7ra

ALMONEDAS
BILBAO

Ikusi altxorrez
betetako azoka bat



Bitxiak, altzariak,
apaingarriak,...
iraganeko altxor txikiak:
orain, Almonedas azokan ikus ditzakezu.

Etenik gabe 12:00etatik 21:00etara.
Salmenta zuzena.

FERIA INTERNACIONAL DE BILBAO
BILBOKO NAZIOARTEKO ERAKUSTAZOKA

468 p.k. - 48080 Bilbo • 94 428 54 00 tel. • 94 442 42 22 telefaxa
http://www.feriaint-bilbao.es • e-mail: fib@feriaint-bilbao.es